



«Normal eta Patologiko» Delakoen Arteko Bereizketa Durkheimiarra.
Gizarte-Lanaren Banaketa eta Gizarte Modernoen Patologiak

Fernando Tapia Alberdi¹

Laburpena:

Artikulu honetan Émile Durkheimen pentsaerari dagokion gizarte-fenomeno «normal» eta «patologikoen» arteko bereizketa orokorraren inguruko kontsiderazio teoriko labur batzuk aurkeztu ondoren, *Gizarte-Lanaren Banaketa*-ri buruzko bere doktorego tesiak barne hartzen duen gizarte industrial modernoaren patologien azalpenari, alegia kapitalismoaren gaitzen diagnostiko durkheimiarrari -edo, autore beraren hitzetan, «gizarte-lanaren adierazpen anormalei»- erreparatuko diogu. Idazki honen helburu nagusia gizarte fenomenoaren ebaluazioari dagokion tresna metodologiko durkheimiarraren analisi zehatza eskeintzea da, beti ere *Metodo Soziologikoaren Arauak* eta *Gizarte-Lanaren Banaketa* liburuetan gaiari buruz barne hartzen dena uztartuz.

Hitz Gakoak:

Ikerketa soziologiko durkheimiarrak, Gizarte- normaltasun eta patologiak, Gizarte-lanaren banaketa, Anomia.

Abstract:

This article initiates with some theoretical reflections on the general distinction between «normal» and «pathological» social phenomena as developed in Émile Durkheim's thought. Second, the durkheimian explanation of the pathologies of modern industrial societies, the diagnostic of the ills of capitalism -or, in this author's own words, «the abnormal forms of the division of social labour»- which is contained in his doctoral thesis on *The Division of Labour in Society*, is addressed. The general aim of this article is to provide a precise analysis of the significance of the durkheimian methodological tool related to evaluation of social phenomena, through a combined approach to the content of the books *The Rules of Sociological Method* and *The Division of Labour in Society*.

Keywords:

Durkheimian sociological studies, Social normality and pathology, Division of social labour, Anomie.

¹Zuzenbidean doktorea, Zuzenbidearen Filosofiako irakaslea da UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean. Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofiako Saila. Manuel de Lardizabal Pasealekua, 2. 20018 Donostia. +34 943 015 281. fernando.tapia@ehu.eus

1. SARRERA: EZAGUTZA ETA EKINTZA DURKHEIMEN PENTSAERAN

Soziologiaren alorrean klasikotzat jotzen den Émile Durkheimen programa soziologikoak teoria eta praktika, ezagutza zientifikoa eta ekintza politikoa zuzen zuzenean uztartzeko ahalegin bat dakar berekin. Ezin daiteke bestela izan, zeren, errepublikazale gisa aho betean aldarrikatzen den disziplina zientifikoa den aldetik, bere azken helburua ez baita – ezin baita izan- errealitatea ezagutzea bakar bakarrik; aitzitik, horrekin batera, errealitatearengan eragin zuzena izateko beharrezkoak diren irizpideak edo jarraibideak eskeintzea ere badu xedetzat². Praktika bera da, horrenbestez, “ezagutza zientifikoaren arrazoi eta jomuga: arrazoa da, munduaren inguruko jakituria zehatza eskatzen dutenak premia praktikoak diren heinean; eta jomuga, berriz, jakintza horrek ekintza egokia edo zuzena bideratzea helburu duen heinean” (Ramos Torre 1999, 31 or.)³. Jarduera zientifikoaren egitekoaren ikuskera berezi honek –eta, hortaz, teoria eta praktikaren (edo ezagutza eta ekintzaren) arteko harremanei buruzko ikuskerak- berekin dakar, gainerako edozein disziplina zientifikok bezalaxe, gizarte-zienziek, eta batik bat soziologiak, euren zientifikotasuna justifikatu behar dutela zientzia gisa legitimitatea, eta dagokion onarpen akademiko-instituzionala lortzeko⁴; berekin du, halaber, “bere garapena eta balizko arrakasta hasiera batean politikoki sustatu zutenen babesa ez galtzearen menpe dagoela” (Ramos Torre 1999, 30 or.)⁵. Ikuspuntu honetatik, soziologia durkheimiar berria da zientzia errepublikazaletan nagusia, zeinak, sustatzen dutenen eskakizunei erantzunez, giza-ekintza bideratzean datzan helburu praktikoa bere egin eta aldarrikatzen duen⁶.

Teoria eta praktikaren arteko harremanen gaiari buruzko jarrera durkheimiarrak berekin dakar analisi soziologiko estruktural-funtzionala dela dagoen gizarte-errealitatea praktikoki

² Bultzatu zutenen eskakizunak bete ahal izateko sortu zen zientzia errepublikazale zen aldetik, soziologia durkheimiarrak ez zuen sekula baztertu giza-ekintzaren bide-erakusle izatean zetzan helburu praktikoki hori. Durkheimem pentsaera moralaren alorreko ezagutza eta ekintzaren -edo teoria eta praktikaren- arteko harremanei buruzko ikuskerari dagokionez (*vid.* Tapia Alberdi 2016, p. 422-440 orr.).

³ Durkheimen soziologiaren izaera errepublikazalearen inguruan, bereziki *vid.* Ramos Torre (1999, 3-81 orr.).

⁴ Bere soziologia inposatzeko Durkheimek diseinatu zuen estrategia konplexuaren azterketaren testuinguruan, Karady soziologo frantziarrak disziplina berriaren onarpena bermatzeko gai izan daitezkeen legitimotasun mota ezberdinak bereizten ditu: legitimotasun instituzionala –eta honen baitan legitimotasun unibertsitarioa eta akademikoa-, legitimotasun zientifiko hutsa eta legitimotasun soziala hain zuzen (Karady 1979, 49-51 orr.).

⁵ Soziologo madrildarrak nabarmentzen duenez, honek esan nahi du “zientzia berria tolesgabea izan behar zela orientazio ideologikoari zein identitate politikoari zegokionez”, eta “jendeurrean zientzia errepublikazale eta aurrerakoi gisa agerrarazi behar zela”. Inolako zalantzarik gabe, ordukoa “axolagabetasunik edo ahanzturarik onartzen ez zuen testuinguru estua zen” (Ramos Torre 1999, 30 orr.).

⁶ Durkheimen identitate politikoa ziurra da, hau da, ez da zalantzarria inolaz ere; errepublikaren ideialekiko atxikimendua nabarmena baita bere ibilbide intelektual osoan zehar. Davyk nabarmentzen duenez (1919, 189 or.) Eskola Normalean ikasten ari zen garaian jada, ordungo aukerarik errepublikazale erradikalarenarekin zetorren bat, ideia politiko tradiziozale eta klerikalen aurka egiten zuen Gambettaren errepublikazalearenarekin hain zuzen. Geroago, berriz, alderdi erradikal-sozialista eta sozialistarekin, alegia, garaiko bi alderdi erreformista eta aurrerakoiekin, zeharo identifikatu zen. Intelektualei eskatu behar zitzairen konpromezu politikoaren ikuskerarekin bat, politikagintzari ekin zion Durkheimek jarduera zientifiko-intelektualaren bitartez, beti ere politikaren alorrean eztabaidagai ziren arazoan analisisa soziologikoki hurbilduz, zeregin hezitzaile eta moralizatzailea egikaritzeko asmoz. Alabaina, bere ustez, erakunde errepublikanoak arriskuan jartzen zituzten eta nazio-larrialdi egoera sorrarazten zuten *Dreyfus afera* edo Lehen Mundu Gerra gisako gertaerek eraginda, hasierako urruntasun zientifiko erlatiboa militantzia aktibo bilakatuko zen aurrerago.

juzgatzea ahalbidetzen duen tresna zientifiko bakarra, haren alderdi edo dimentsio normalak zein patologikoak era objektiboan muga ditzakeen heinean. Hortaz, pentsalari alsaziarraren arabera, soziologoaren egitekoa ez da bakarrik gizarte fenomenoaren kausak zein funtzioak azaleratu eta ulertzea; horrez gain, ezinbestekoa da, fenomeno normalak eta patologikoak bereizi ondotik, patologia sozialei erreparatu eta aurre egin diezaion, beharrezkoak diren neurri terapeutikoak proposatuz. Hala bada, normal eta patologikoaren arteko bereizketa durkheimiarraren azpian -eta korrelatiboa den fisiologiaren eta patologiarenekin- dagoena da balio-judizioak zientifikoki justifikatzeko edo oinarritzeko Durkheimen desioa (Lukes 1985, 28 or.).

Artikulu honetan Émile Durkheimen pentsaerari dagokion gizarte-fenomeno «normal» eta «patologikoen» arteko bereizketa orokorraren inguruko kontsiderazio teoriko labur batzuk aurkeztu ondoren, *Gizarte-Lanaren Banaketa* (1893) izenburua duen monografia ezagunak, bere doktorego-tesia izan zenak, barne hartzen duen gizarte industrial modernoaren patologien azalpenari, alegia kapitalismoaren gaitzen diagnostiko durkheimiarrari -edo, autore beraren hitzetan, «gizarte-lanaren adierazpen anormalei»- erreparatuko diogu.

2. GIZARTE-FENOMENO NORMAL ETA PATOLOGIKOEN ARTEKO BEREIZKETA

Arestian adierazi dugunaren arabera, gizarte-fenomeno normalen eta patologikoen arteko bereizketarena da Durkheimen pentsakeraren alderdi garrantzizkoenetakoa, gizartearen (eta, beraz, soziologiaren) ikuskera estruktural-funtzionalarekin eta eztabaida ugari sortu duen teoria eta praktikaren arteko harremanen gaiarekin estuki lotuta agertzen dena. Gure iduriko, oinarritzeko dikotomia durkheimiar honek analisi sakona merezi du, batik bat Durkheimen lanaren iruzkingileek bazterrerara utzi dutelako edo, gutxienez, soziologia frantziarraren aitaren pentsakera berreraikitze funtsezkoak diren «gizarte-normaltasunaren» eta «gizarte-patologiaren» kontzeptuen garrantziaz jabetu ez direlako⁷. Gainera kontzeptu horiek jorratzea ezinbesteko dirudi soziologoek patologiarenekin azterketak ia-ia baztertu baitituzte, «desbiderapenaren soziologiaren» alorrekoak salbu⁸.

Kausalitate-eredu durkheimiarraren arabera, izaera estruktural-funtzionala duten gizarte-faktore jakinek determinatzen dituzte, nola gizarte-bizitza hala honen segidako aldaketak⁹. Durkheimen pentsakera soziologikoan “egitura oro funtziodun egitura gisa dago: eratutako gizataldearen biziraupena ahalbidetuko duen beharren asebetetzeak berekin dakartzan egikaritza jakinak determinatzen eta galdatzen dituen gizarte-osagaien antolaketa-sistema gisa”(Moyá 1970, 63 or.) hain justu. Gizartearen funtzio ezberdinak baina elkarri lotutakoak betetzen dituen organo-multzoa denez, gizarte-oreka funtzioen arteko

⁷ Izanez ere, soziologia durkheimiarra mendebaldeko gizarte garaikideen patologiei buruzko edo gizarte-ondoezari buruzko diskurtsoa bait du abiapuntutzat. Azken batean, XIX. mende amaierako gizarte industrialak kritikotzat jotzen dituen diagnostiko batetik abiatzen da bere pentsakera soziologikoa. Ikuspuntu honetatik esan daiteke gizarte gaixo batean bizi zen, eta honen aurrean zientzia positiboak eskein zitzaizkeen erremedioen bila zebilen pentsalari baten erantzuna dela Durkheimen soziologia. Zalantzarik gabe, “Durkheimen soziologiaren gaineko interesa bere krisi sentimendu sakonaren ondorio bat baino ez da” (Joas 1993, 231 or.).

⁸ Rodríguez Zúñiga (1978, 24-36 or.), Besnard (1982, 1987, 2003, 23-36 orr.), Lukes (1985, 28-30 orr.) eta Gane-ren (1995) gai honi buruzko idazlanak aipamen berezia merezi duten salbuespenak dira.

⁹ Ideia horixe adierazi nahi du, hain justu, *Gizarte-Lanaren Banaketa*-n “iraganak aurretik erabakitzen duen etorkizuna” (Durkheim 1987, 430 or.) esaldi arras ezaguna idazten duenean.

orekan datza. Jakina, zenbat eta konplexuago bilakatu gizarte-bizitza, orduan eta problematikoagoa da oreka bera. Bestela esanda, elkarrekiko menpekotasun funtzionalak ez du automatikoki gizartearen oreka funtzionala, sistemaren integrazioa alegia, sortzen¹⁰. Izanez ere, fenomeno disfuntzional edo patologikoek halako moldez hausten dute gizarte-ordena edo -oreka, non behar beharrezkoa den, fenomeno horiek deskribatzeaz gain, soziologiak aurre egin diezaien patologiei, ezinbestekotzat jotzen diren neurri terapeutikoak proposatuz. Hala bada, Saint-Simon eta Comtek abian jarritako ikusmoldea bere eginda, “politikagintza eta medikuntza oso antzekoak direla” (Lukes 1985, 30 or.)¹¹; eta, horregatik, soziologia berriak teoria eta praktika, ezagutza zientifikoa eta politikagintza zuzen zuzenean uztartzean datzan eginkizuna beretzat hartu behar duela, deritzo Durkheimek. Horrela izanik, analisi estruktural-funtzionala, “gaur egungo gizarte-errealitatearen alderdi normal eta patologikoak objektiboki bereizi ditzaken heinean, errealitate bera praktikoki juzgatzea ahalbidetzen duen zientzia da” (Moyá 1970, 84 or.).

Metodo Soziologikoaren Arauak monografiaren III. kapituluak barne hartzen duen fenomeno normalen eta patologikoen arteko bereizketari buruzko erregela metodologikoen formulazioaren helburua honakoa da: gizarte-fenomenoen azterketaren alorrean egitea proposamen bat, zeinaren arabera balio-judizioak zientifikoki justifika daitezkeen. Pentsalari alsaziarraren hitzetan, kontua da “gizarte-gertaeren arlo desberdinetan osasuna gaixotasunetik zientzi mailan bereizteko aukera emango ligukeen, gertaerei berei atxikiriko, irizpide objektibo bat” aurkitzea, “zientzia praktika argitzeko eta janzteko baldintzetan” jarriko lukeena, beti ere “bere metodoari fidel” izaten utzi gabe (Durkheim 1988, 104 or., 1997, 83 or.)¹². Normaltasunaren definizio zientifikoa durkheimiarra determinatzen duen irizpide hori orokortasunarena da, autore berak honela adierazten duena:

Bere bilakaeraren ekinaldi jakin batean aurkitzen den gizarte-tipo jakin batentzat, gizarte-gertaera bat normala da, bere bilakaeran dagokion faseko espezie horren batez bestekoan gertatzen denean (Durkheim 1988, 120 or., 1997, 98-99 orr.)¹³.

¹⁰ Moyák nabarmentzen duenaren arabera, Durkheimen aburuz “gizartearen oreka ez da doikuntza-mekanismo automatikoen emaitza berehalakoa, garatuz doan eraketa-joera bat baizik”, eta beraz, “hamaika arrazoiengatik aldeni daitezke gizarte indibiduala bere bide normaletik, egoera patologikoa sorraraziz” (Moyá 1970, 64. or.).

¹¹ Moyák adierazten duenez, ez dago zalantzarik, “medikuntzak era erabakigarrian inspiratzen du *in status nascendi* dagoen Soziologia: Bichat (1771-1802) zein Cuvier-en (1769-1832) kategoria biologikoen bitartez, Saint-Simon eta Comtek organizismo zaharra, kutsu metafisiko gehiago edo gutxiagorekin, erantsi zioten zientzia positibo berriari [...] eta azken hori razionalismo positibistak zientzia eredugarri zein miresgarritzat zuen Biologiari begira jarri zen” (Moyá 1970, 58. or.). Durkheim berak berrestsiko ditu delako ideiak honakoa nabarmentzen duenean: “Estatu-politikariaren betebeharra ez da jada gizarteei limurtzaile azaltzen zaien idealerantz bortizki bultzatzea egitea, baizik eta bere eginkizuna medikuarena da: garbitasun onean oinarrituta gaixotasunen agerpena prebenitzea eta agertzen direnean, sendatzen saiatzea” (Durkheim 1988, 131 or., 1997, 110 or.).

¹² Durkheimen liburu bat izan ezik, aipatutako gainerako literatura ez dagoenez euskarara itzulita, beharrezkoa izan den bakoitzean, egile berak egin ditu itzulpenak. Arrazoi hori dela-eta, hemendik aurrera, honera ekarri gaituen aiputik hasita, itzulpen bakoitzari dagokion Durkheimen jatorrizko testua barne sartzen dugu oin-oharretan. Honatx:

Si donc nous trouvons un critère objectif, inhérent aux faits eux-mêmes, qui nous permette de distinguer scientifiquement la santé de la maladie dans les divers ordres de phénomènes sociaux, la science sera en état d'éclairer la pratique tout en restant fidèle à sa propre méthode (Durkheim 2002b, 38. or.).

¹³ Un fait social est normal pour un type social déterminé, considéré à une phase déterminée de son développement, quand il se produit dans la moyenne des sociétés de celle espèce, considérées à la phase correspondante de leur évolution (Durkheim 2002b, 44. or.).

Orokortasuna oinarritzat duen normaltasunaren definizioaren arabera, fenomeno patologikoak gizarte-tipo ertainetik edo batez bestekotik aldentzen direnak dira¹⁴; edo, Durkheimen hitzetan, “osasunaren patroia honetako desbideraketa oro gertakari morbosoa dela” baieztatu daiteke (Durkheim 1988, 111 or., 1997, 90 or.)¹⁵. Hala eta guztiz ere, «krisialdi iragankor zein igarokorrak» dituzten gizarteetan, eraldaketa aldietan dauden gizarteetan alegia, normaltasuna ezin denez zehaztu orokortasunaren irizpidea aplikatuz – eta, halaber, gizarte industrial modernoaren bereizgarri diren fenomeno jakinak, patologikotzat jotzen dituenak gainera, bere definizioan sar daitezkeen ezin duenez onartu, normaltasuna zeharka definitzen duen erregela osagarri bat proposatzen du. Honatx:

Aurreko metodoaren emaitzak egiaztatu egin daitezke, gertakariaren orokortasunak, bere erroak, kontuan hartu den gizarte-tipoak dituen talde-bizitzaren baldintza orokorretan dituela. [...] Egiaztapen hori beharrezkoa da, gertaera hori oraindik ere bere osotasunezko bilakaera egin ez duen gizarte-espezicari dagokionean (Durkheim 1988, 120 or., 1997, 99 or.)¹⁶.

Durkheimen arabera, nabarmendu dugun egiaztapen hori behar beharrezkoa da eraldaketa aldiak dauden gizarteak direnean aztergai, horietan, lehenengo erregela bakarrik erabiltzeko huts egitera eraman bait dezake soziologoa. Kasu horietan egiaztapena ezinbestekoa da “gertakariak burutu eta gauzatutako tipo normal bakarra iraganekoa” delako, “izate-baldintza berriei egokitzen ez zaiena” hain justu. Horrela, aipatutako kasuetan, “gertakari batek iraun egin dezake espezie baten multzoaren barruan, bere egoeraren eskakizunei erantzun gabe”, eta une hartan “normaltasun-itxurak baizik ez dira azaltzen eta agertzen duen orokortasuna ez da itxurakeriazko etiketa baizik, ezen ohitura itsuaren indarrez bakarrik iraunez, jada ez baita behatutako gertakaria taldeko izaeraren baldintza orokorrei lotuta egotearen seinale” (Durkheim 1988, 116 or., 1997, 95 or.)¹⁷.

Aipatutako erregelok berekin dakarte «egitatezko normaltasunaren eta eskubidezko normaltasunaren» arteko bereizketa durkheimiarra¹⁸. Delako bereizketari dagokionez,

¹⁴ Gizarte-gertakari normalen eta patologikoen arteko bereizketa durkheimiarra gizarte ezberdinen tipologia eta sailkapen batean oinarritzen da ezinbestean. Izan ere, «Gizarte-tipoen eraketari buruzko arauak» izenburua duen *Metodo Soziologikoaren Arauak* liburuaren IV. kapituluaren hasiera-hasieran nabarmentzen denaren arabera, “gizarte-gertakari bat, gizarte-espezie jakin batekiko duen erlazioaren arabera, normaltzat edo anormaltzat bakarrik har daitekeenez, aurretik adieraziak, soziologiaren adar bat espezie horien eraketa eta sailkapenari eskaini beharra dakar” (Durkheim 1988, 132. or., 1997, 111 or.). Honatx Durkheimek proposatzen duen sailkaketa-printzipioaren formulazioa: “Gizarteak, azaltzen duten konposizio-mailaren arabera sailkatetik hasiko da eta gizarte osoro vacuna edo segmentazio bakarrekoa oinarritzat hartuta; mota horien barruan, aldagai desberdinak bereiziko dira, hasierako segmentuen koaleszentzia osoa gertatzen denaren ala ez denaren arabera” (Durkheim 1988, 142 or.; 1997, 121-122 orr.).

¹⁵ Tout écart par rapport à cet étalon de la santé est un phénomène morbide (Durkheim 2002b, 40. or.).

¹⁶ On peut vérifier les résultats de la méthode précédente en faisant voir que la généralité du phénomène tient aux conditions générales de la vie collective dans le type social considéré. [...] Celle vérification est nécessaire, quand ce fait se rapporte à une espèce sociale qui n'a pas encore accompli son évolution intégrale (Durkheim 2002b, 44. or.).

¹⁷ Le seul type normal qui soit dès à présent réalisé et donné dans les faits est celui du passé, et pourtant il n'est plus en rapport avec les nouvelles conditions d'existence. Un fait peut ainsi persister dans toute l'étendue d'une espèce, tout en ne répondant plus aux exigences de la situation. Il n'a donc plus, alors, que les apparences de la normalité ; car la généralité qu'il présente n'est plus qu'une étiquette menteuse, puisque, ne se maintenant que par la force aveugle de l'habitude, elle n'est plus l'indice que le phénomène observé est étroitement lié aux conditions générales de l'existence collective (Durkheim 2002b, 42-43. orr.).

¹⁸ Durkheim berak erabiltzen du honako terminologia hau (Vid. Durkheim 1988, 115 or.; 1997, 94. or.).

autore alsaziarraren ustez, garai historiko jakin batean gerta bait daiteke gizarte-gertakari bat, orokorra dena, normala ez izatea; posible da, horrenbestez, gertakari bat orokorra izan arren ezertarako balio ez duenez, gauzen izaeran funtsatua ez egoteagatik, patologikotzat hartu behar izatea. Eskubidezko normaltasunak, hartara, “egitatezkoaren berehalakotasun erradikala zuzentzeko” (Rodríguez Zuñiga, 1978, 35 or.) balio du: gizarte-gertakari jakin bat espeziearen iraupenaren arrazoi baldin bada, edo, bestela esanda, “bizi-baldintza orokorretatik ondorioztatzen” (Durkheim 1988, 116 or., 1997, 94 or.)¹⁹ baldin bada, orduan horren normaltasuna ukaezina da, edozein dela agertzen duen orokortasun-maila²⁰. Egitatezko eta eskubidezko normaltasunaren arteko bereizketak erakusten du zalantza izpirik gabe Durkheimek sakonki aldarazi zuela bere garaiko errealitate historiko positiboaren pisua, alegia “sozialki emanda datorkigunaren balio metodologikoa” (Rodríguez Zuñiga, 1978, 35 or.). Izan ere, bere gogoia jarri bait zuen “egoera «normal» irudizko” batean, hots, gaur egun modu latentean bakarrik antzeman edo irudikatu daitekeen etorkizuneko gizarte ideal baten egoera normalean (Besnard 2003, 34 or.).

Erregela oinarrizkoa eta osagarria adierazi ondoren, “soziologia benetan gauzen zientzia izan dadin, beharrezkoa da gertakarien orokortasuna normaltasun-irizpidetzat hartzea”, diosku Durkheimek (1988, 130 or., 1997, 109 or.)²¹. Arestikoak esan nahi duena da lan soziologikoaren helburua dela “egoera normalari irauarazteko jarraipen erregularrez lan egitea, nahasten bada berriro ezartzea eta, baldintzak aldatzen badira, berriro horretarako egokiak direnak aurkitzea” (Durkheim 1988, 130 or., 1997, 110 or.)²².

Normaltasunaren eta patologiarenean arteko bereizketa durkheimiarrari buruzko atal hau amaitzeko nabarmendu nahi dugu, Durkheimen arabera, gizarte jakin baten edo gizarte-tipo baten bilakaeraren fase konkretu bati dagokion gizarte-fenomeno multzo zehatz bat, eta hori baino ez, “gizarte-bizitzaren funtsezko baldintzei lotuta dagoela eta hain zuzen ere arrazoi horregatik dela erabilgarria”; eta, hortaz, “gizarte-tipo beragan ere aldatu egiten direla talde-bizitzaren baldintzak aldatzen direnean” (Durkheim 1988, 126 or., 1997, 105 or.)^{23 24}. Arestian adierazitakoaren ondorioz, gizartearen egungo eta etorkizuneko eboluzioaren alternatiba historikoak daudelakoaren ideia erabat ukatzen du Durkheimek.

3. GIZARTE MODERNOEN PATOLOGIAK *GIZARTE-LANAREN BANAKETA-N*

¹⁹ On peut se demander, il est vrai, si, quand un phénomène dérive nécessairement des conditions générales de la vie, il n'est pas utile par cela même (Durkheim 2002b, 42. or., n. 2).

²⁰ Horregatik esan ohi da “azken batean Durkheimek anormala denaren normaltasuna onartzen duela” (Besnard 2003, 35 or.).

²¹ Pour que la sociologie soit vraiment une science de choses, il faut que la généralité clés phénomènes soit prise comme critère de leur normalité (Durkheim 2002b, 48. or.).

²² Il [...] s'agit [...] de travailler avec une régulière persévérance à maintenir l'état normal, à le rétablir s'il est troublé, à en retrouver les conditions si elles viennent à changer (Durkheim 2002b, 48. or.).

²³ [Le crime] est lié aux conditions fondamentales de toute vie sociale, mais, par cela même, il est utile. [...] qu'ils [le droit et la morale] changent pour un même type si les conditions de l'existence collective se modifient (Durkheim 2002b, 46-47. or.).

²⁴ Nahiz krimenaren analisiaren markoan adierazten dituen iritzi hauek, beste edozein gizarte-gertakariaren kasuan aplikagarri direla kontutan hartzea baliagarri gerta dakiguke. Zalantza izpirik gabe, ikuspuntu durkheimiar honek berebiziko garrantzia hartzen du moralaren analisiaren alorrean (zentzu zabalean, Zuzenbidea barne), berekin baitakar erlatibismo moral arras berezia. Beste idazki batean azaltzen dugu gai honen inguruan proposatzen dugun tesia, zeinaren arabera, nahiz bere zientzia-objektibotasun nahiak «kultur-erlatibismo» delakora bultzatu, horrek ez duen eramatzen, ezta hurrik eman ere, «erlatibismo moral» muturreko batetara (*vid.*: Tapia Alberdi 2016, 433-440 or.).

Gauza jakina da *Gizarte-Lanaren Banaketa* doktorego tesian, guztiz desderdinak diren bi gizarte-mota (edo gauza bera dena, bi solidaritate-lotura) bereiz daitezkeela azaldu nahi duela Durkheimek: batetik, antzinako gizarte tradizionalak, antzeko elementuak elkarren ondoan jartzearen zein gizarte-funtzioen desberdintzapen eskasaren ondorio den solidaritate mekanikoa bereizgarri dutenak²⁵; eta, bestetik, gizarte modernoak, lanaren banaketaren, hots, funtzio ekonomiko eta sozialen elkar menpekotasunaren emaitza den solidaritate organikoak ezaugarritzen dituenak²⁶. Hala bada, gizarte industrial modernoei dagokionez, tesi durkheimiarra lanaren banaketaren moralezko ondorioak nabarmentzean datza. Gizarte-lanaren banaketa bilakatzen baita, Durkheimek deritzenez, gizarte-mota horien gizarte-kohesioaren iturri nagusi (Durkheim 1987, 73-74 orr.).

Alabaina, lanaren banaketak gizarte modernotan orohar sortzen dituen ondorioen inguruko baikortasun durkheimiar nabarmena ez dator bat *Gizarte-Lanaren Banaketa*-ren III Liburuan, fenomenoaren «adierazpen anormaleei» edo patologikoei buruzkoan, azaltzen duen diagnostiko kezkarriarekin (Durkheim 1987, 415-464 orr.)²⁷. Guztiarekin ere, Durkheim berak gutxiagotu egiten du aipatutako III. Liburuaren edukiaren munta, horren hasiera hasieran nabarmentzen duenean, batetik desbideratutako adierazpenen azterketak “egoera normalaren izate-baldintzak hobeto mugatzea” (Durkheim 1987, 415 orr.) duela helburu²⁸; eta, bestetik, aztergai dituen horiek “fenomenoaren ohiz kanpoko adierazpenak” (Durkheim 1987, 416 orr.) baino ez direla²⁹. Honatx bere doktorego tesian nabarmentzen dituenak:

a) Durkheimek aztertzen duen lehenengo adierazpen anormala «*lanaren banaketa anomiko*» deritzona da³⁰. Ondoren azalduko dugunaren arabera, erraz ulertu ahal izango da lanaren banaketaren adierazpen ezohiko hau arras interesgarria dela soziologia juridikoaren eta moralaren ikuspuntutik.

Honako fenomeno patologiko hau azaltzeko asmoz, ohiz kanpoko egoera beraren hiru adibide aipatzen ditu pentsalari alsaziarrak: i) lehen-lehenik industria- zein merkataritza-

²⁵ Solidaritate mekaniko edo antzekotasunean oinarritutakoari buruz (*vid.* Durkheim 1987, 83-129 orr.).

²⁶ Lanaren banaketaren ondorio den solidaritate organikoari buruz, batik bat (*vid.* Durkheim 1987, 131-55 Orr).

²⁷ Esanguratsua da Celestin Bouglé durkheimiarraren baieztapena, zeinaren arabera “Durkheimek aurkeztzen duen apologiak ikuskera arras ezkorra dakarren berekin, gizarte-lanaren banaketaren kritiko sozialistek eskeintzen zutenaren bezain ezkorra hain justu” (Bouglé 1903, 107 orr.).

²⁸ L'étude des formes déviées nous permettra de mieux déterminer les conditions d'existence de l'état normal (Durkheim 2002a, II, 104. orr.).

²⁹ Nous ramènerons à trois types les formes exceptionnelles du phénomène que nous étudions (Durkheim 2002a, II, 105. orr.).

³⁰ «Anomia» terminoa arras ezaguna da gizarte-jakintzen alorrean Durkheimen *Suizidioa* monografia barneko arrazoibide orokorrean duen garrantziagatik nagusiki; baina batik bat 1960. hamarkadako literatura soziologikoan lortu zuen arrakastagatik. Besnardek nabarmentzen duenez, “arrakasta honek adierazpen anormalei buruzko liburuaren atal honen ulermena lausotzen lagundu du, hainbat iruzkingilek anomia izenaren baitan Durkheim berak guztiz bereizten zituen patologia ezberdinak bildu baitituzte” (Besnard 2003, 27-28 orr.).

Bestalde, baina aurrekoarekin lotuta, aipatu ditugun lan durkheimiarretan kontzeptuak duen presentzia zein muntagatik, ohikoa da soziologo alsaziarra «anomiaren soziologo» gisa aurkeztea. Alabaina, Besnardek nabarmendu duenaren arabera, horrekin esan nahi dena bada “bere ibilbide intelektual guztian zehar gizarte europarren «krisialdi» egoeraz arduratu zela, eta gizarte modernoek kohesioaren baldintzak aztertu zituela”, orduan baieztapena zuzena litzateke. Aldiz, esan nahi dena baldin bada bere ibilbidean zehar agertzen duen asmo nagusia gizarte garaikideetako anomiarri irtenbidea aurkitzea, orduan baieztapena ez litzateke batere zuzena. Ikuspuntu horretatik esan daiteke “Durkheim ez dela anomiarren soziologoa” (Besnard 1982, 46 orr.).

krisialdiak, enpresa-porrotekin batera (Durkheim 1987, 416-417 orr.); ii) bigarrenik, lanaren eta kapitalaren arteko antagonismoa, nabarmena dena bereziki industria handiaren alorrean (Durkheim 1987, 417-419 orr.); eta, bukatzeko, iii) jarduera zientifikoaren alorrean geroz eta handiagoa den espezializazioaren ondorio den zientzien banaketa (Durkheim 1987, 419-420 orr.).

Alabaina, orokorrak diren arren, Durkheimen iduriko, ezin da esan fenomeno anormal hauek lanaren banaketaren ezinbesteko ondorio direnik; aitzitik, guztiak ere gizarte modernoan bereizgarri den solidaritate organikoaren “izate-baldintza guztiak” ez direlako gauzatu sortzen dira (Durkheim 1987, 429 or.)^{31,32}. Aipatutako baldintzei gagozkielarik, oinarritzkoak diren hiru aipatzen ditu Durkheimek: 1) «organoen» arteko erlazio-sistema beharrezkoa egon dadila; 2) organoek orohar elkarrekiko solidaritatea nabaritu dezatela, eta 3) nola jardun behar duten alde zuzenak xedatuko duen arau-multzo jakin bat egon dadin (Durkheim 1987, 429 or.). «Anomia egoera» nozioak, bada, solidaritate organikoaren arestiko hirugarren baldintza egikaritu ez dela dakar berekin; hau da, espezialduriko edo banatutako funtzioen lankidetzaren berma dezakeen erregulaziorik ezaren ondorio zuzena da³³. Hau agertzearen arrazoia, berriz, lehen baldintzaren egikaritzea eskasean datza; hau da, organoaren arteko harremanak nahiko ez izatean. Horrela bada, arauak elkarrekin (hartu-emanen) ondorio ia ia automatikoa da. Izanez ere, araudi bat “denboraren poderioz gizarte-funtzioen artean berez sortzen diren harremanek hartzen duten molde definitua baino ez da” (Durkheim 1987, 433 or.)³⁴. Egoera anomikoa organo solidarioen artean nahiko kontaktu ez badago edo, egonda ere, “hurbiltasuna gertatu berria edo iraupen gutxikoa bada” (Durkheim 1987, 433-4334 orr.) baino ez da agertuko³⁵.

Arestian aipatu ditugun hiru adibideetan, hain zuzen, hirugarren baldintza da falta dena. Lehen-lehenik, nola enpresa kopurua zehaztuko, hala ekoizpena eta kontsumoa doitu dituzten araurik ez dago (Durkheim 1987, 431 or.). Hortaz, gizarte industrialetan aldizkako krisi ekonomikoak ekoizleen eta kontsumitzaileen (funtzioen) arteko koordinaziorik ezaren ondorio dira. Bigarrenik, kapitalaren eta lanaren arteko harremanak “zehaztugabetasun juridiko egoera berean” egon dira, Durkheimek deritzenez (Durkheim 1987, 432 or.)³⁶. Azkenik, zientzia ezberdinen arteko koordinaziorik ezari dagokionez, autore alsaziarrak “zientzia moral eta sozialei” erreparatzen die batez ere, “xede erkideak lortzearen zientzia ezberdinen ahaleginak bateratuko dituen disziplinarik ez dagoela” (Durkheim 1987, 432 or.) nabarmenduz^{37,38}.

³¹ [...] toutes les conditions d'existence de la première [de la solidarité organique] ne sont pas réalisées (Durkheim 2002a, II, 113. or).

³² Baliagarri gerta dakiguke kontutan hartzea testuinguru honetan direla aplikagarri idazki honen aurreko atalean azaldu ditugun «egitatezko normaltasun» eta «eskubidezko normaltasun» nozioak.

³³ Durkheim beraren hitzetan, kontua da “[solidaritate organikoa] agertzen den nonhai, horrekin batera funtzioen elkarrenganako erlazioak xedatzen dituen arauak nahiko zabala beha daitekela” (Durkheim 1987, 419 or.).

³⁴ Puisqu'un corps de règles est la forme définie que prennent avec le temps les rapports qui s'établissent spontanément entre les fonctions sociales (Durkheim 2002a, II, 115. or).

³⁵ Il en sera de même si la contiguïté, tout en étant suffisante, est trop récente ou a trop peu duré (Durkheim 2002a, II, 115. or).

³⁶ Les rapports du capital et du travail sont, jusqu'à présent, restés dans le même état d'indétermination juridique (Durkheim 2002a, II, 114. or).

³⁷ Il n'y a guère de disciplines qui concertent les efforts de sciences différentes en vue d'une fin commune. C'est surtout vrai des sciences morales et sociales (Durkheim 2002a, II, 114-115. orr.).

Esan gabe doa, jakina, behar beharrezkotzat jotzen duen disziplina hori, espreski aipatzen ez duena, soziologia (durkheimiarra) dela.

Anomiaren gaiarekin amaitzeko, nabarmendu beharra dago hasierako ikuskera, arestian azaldu dugun *Gizarte-Lanaren Banaketa* liburukoa, zeinaren arabera anomia espezialduriko funtzioen arteko lankidetzaz ahalbidetu eta berma lezakeen gizarte-arauketarik eza gisa ideiatzen den, zeharo aldatuko dela Durkheimen geroko idazlanetan. *Suizidioa* (1897) monografian, hain zuzen, anomia ez da jada erregulaziorik eza soil gisa ulertzen; «infinitoaren gaitz» gisa baizik, honen jatorria giza-desioaren mugagabetasuna, erdietsi beharreko helburuen zehazgabetasuna zein bidezko itxaropenei buruzko ziurgabetasuna direlarik³⁹.

Lanaren banaketa anomikoari buruzko kapituluaren bukaera aldera, autore alsaziarrak bi orrialde eskasetan nabarmentzen du egoera berezi bat, zeina berak ezaugarritutako anomiarekiko guztiz desberdina den: gure ustez zuzen baino zuzenago “lan apurrak” (edo “lana puskatan”) izendatu izan dena hain justu (Besnard 2003, 30 or.)⁴⁰. Azalpen durkheimiarraren arabera, “lanaren banaketa gaitzetsia izan da maiz” gizabanakoa makurtarazi, doilortu egiten duelako, “makina soila izatera bihurtzen duelarik” (Durkheim 1987, 436 or.)⁴¹. Guztiarekin ere, gainerako adierazpen anormalen kasuan bezalaxe, Durkheimen adierazpenen arabera, delako egoera hauek ez dira lanaren banaketaren ezinbesteko ondorio, hura urardotzen duten “egoera ohiz kanpoko eta anormalen” emaitzak baizik (Durkheim 1987, 438 or.)⁴².

b) Autore alsaziarrak nabarmentzen duen bigarren adierazpen anormala «*hertsapenezko lanaren banaketa*» deritzona da. Arestian azaldutako anomiatan kasuan ez bezela, adierazpen anormal honen kasuan arauketa, egon, badago, baina zeharo injustoa da, solidaritate organikoaren egikaritzaz arriskuan jartzen duten desberdintasunen agerpena eragiten duen heinean (Durkheim 1987, 432 or.). Durkheimek gizarte-patologia honen bi alderdi edo dimentsio bereizten ditu: lehen-lehenik, gizarte-eginkizun edo -posizio

³⁸ “Juristak, psikologoak, antropologoak, ekonomilariak, estadistikoak, hizkuntzalariak eta historialariak ikerkuntzari ekiten diote aztergai dituzten gertakari mota ezberdinak guztiz bereizita dauden aparteko munduetakoak izango bailiran” (Durkheim 1987, 432 or.), diosku Durkheimek.

³⁹ Honek berekin dakar helduaroko idazlanetan anomia ez dela kanpo-arauketarik eza soil, gizabanako barnekoa baizik, gizatasunaren osagai garrantzizkoena dena. Izanez ere, Durkheimen gizatasunaren ikuskeraren arabera, gizakiak behar beharrezkoa duen gizartearen jardun zibilizatzailea -integratzaile zein erregulatzaila dena-, azken hori baita gizakiaren desioak eta grinak, bere natura indibidualetik ondorioztatzen direnak, eusteko gai den instantzia bakarra. Hots, gizartea da infinitoaren gaitza geldiarazi dezaken bakarra. Durkheimen giza-izaerari buruzko ikuskerari, hau da, bere proiektu soziologikoaren oinarri psikologikoei buruz (*vid.*, Tapia Alberdi 2016 291-298 orr.). Infinitoaren gaitza eta arauketaren arteko erlazio konplexuei buruz (*vid.* Cotterrell 1999, 18-21orr.).

Suizidioa monografian adierazten duenez, XIX. mende amaiera aldera modan dauden filosofia jakinak, justu kontrakoa, “infinitoarekiko pasioa” aldarrikatu eta “ezegonkortasunaren onura goraiatzen dutenak”, “gizatasuna ezaugarritzen duena nahigabe betierekoa dela” sinesgai bihurtuz, guztiz arbuatzen ditu Durkheimek (1992, 276 or.).

⁴⁰ Aipatutako soziologo frantziar ospetsuak Georges Friedmannek argitara emandako *Le travail en miettes* liburuaren izenburuan oinarrituta erabiltzen du esamoldea.

⁴¹ [...] un des plus graves reproches qu'on ait faits à la division du travail. On l'a souvent accusée de diminuer l'individu en le réduisant au rôle de machine (Durkheim 2002a, II, 117. or.).

⁴² La division du travail ne produit pas ces conséquences en vertu d'une nécessité de sa nature, mais seulement dans des circonstances exceptionnelles et anormales (Durkheim 2002a, II, 118. or.).

jakinetara heltzeko desberdintasuna; eta bigarrenik, zerbitzu-emate jakinen ordainen balioa finkatzen duten kontratuen desberdintasuna⁴³.

Lehendabiziko dimentsioari dagokionez, esan daiteke ikuskera durkheimiarraren arabera, desberdintasun hori “funtzio sozialen esleipenaren” eta “gaitasun naturalen banaketaren” (Durkheim 1987, 440 or.) arteko elkarrekikotasunik eza nagusitzean datzala⁴⁴. Bestela esanda, desberdintasun mota hau dago gizabanakoen artean ez dagoenean aukera berdintasunik gizarte- zein lanbide- eginkizun jakinak betetzera iristeko. Gizarte industrial modernoetan gizabanakoek, beti ere gai izanik, ezin badituzte funtzio jakinak bete, funtzioen esleipen bera ez-zilegitzat jo behar da eta “hertsapenaren bitartez baino ezin da iraunarazi” (Durkheim 1987, 442 or.)⁴⁵. Durkheimek eskeintzen dituen fenomeno moderno honen adibide nagusiak dira lanpostu publikoetara iristeko trabak eta jaraunsletzaren instituzioa (Durkheim 1987, 443-445 orr.).

Bigarren dimentsioari dagokionez, berriz, injustiziaren bestelako iturri bat kontratugintzaren bitartez elkartrukearen objektu diren gauzen edo zerbitzuen balio sozialaren baliokidetasunik ezean datza, Durkheimek deritzenez. Eta elkartrukatutako delako gauza edo zerbitzuek balio berekoak izan daitezen behar beharrezkoa da “kontratugileak kanpo-baldintza berdin berdinetan jarrita egon daitezen” (Durkheim 1987, 450 orr.)⁴⁶. Bestela esanda, “jaiotzatiko aberats eta txiroak baldin badaude, ezinezkoa da kontratu injustorik ez egotea” (Durkheim 1987, 450-451 orr.)⁴⁷.

Hala eta guztiz ere, Durkheimek sustatzen duen gizarte meritokratikoa ez da, ezta hurrik eman ere, berdintasunezko gizartea. Aitzitik, autore berak argi eta garbi nabarmentzen duenez, “lanaren banaketaren aurrerakuntzak berekin dakar [...] geroz eta handiagoa den gizarte-desberdintasuna” (Durkheim 1987, 445 or.)⁴⁸. Gizarte modernoetako kontzientzia kolektiboa iraintzen duen desberdintasun bakarra -solidaritate organikoaren egikaritza eragozten duena- lehiaren kanpo-baldintzei dagokiona da: aukera-berdintasunik eza, alegia. Horrenbestez, aitzinean esandakoaren arabera, Durkheimen iduriko, aukera-berdintasuna baldin badago, orduan desberdintasun sozio-ekonomikoak zilegi dira solidaritate organikodun gizarte industrial modernotan.

d) Gizarte-lanaren banaketaren adierazpen anormaleei buruzko azalpena bukatzeko, azkeneko patologia bati erreparatzen dio Durkheimek kapitulu labur batean. Eta, egia esan, ez du ematen patologia hau gehiegi interesatzen zaionik zeren, orrialde gutxi batzuk

⁴³ Philippe Besnarden iduriko, análisis durkheimiarrean desberdintasun mota hauek hain gertu daude bata bestearikiko, non «aukera desberdintasuna» esamolde modernoa erabili bait daitekeen biak bere baitan biltzeko (Besnard 2003, 25 or.).

⁴⁴ [...] c'est que la distribution des fonctions sociales sur laquelle elle repose ne répond pas, ou plutôt ne répond plus à la distribution des talents naturels (Durkheim 2002a, II, 120. or.).

⁴⁵ [...] la réglementation, [...] ne se soutient que par la force (Durkheim 2002a, II, 121. or.).

⁴⁶ La condition nécessaire et suffisante pour que cette équivalence soit la règle des contrats, c'est que les contractants soient placés dans des conditions extérieures égales (Durkheim 2002a, II, 126. or.).

⁴⁷ Il ne peut pas y avoir des riches et des pauvres de naissance sans qu'il y ait des contrats injustes (Durkheim 2002a, II, 126. or.).

Nahiz autore berak ez duen testuinguru honetan beren-beregi adierazten, argi dago jaraunsletzaren instituzioa dela berdintasuna erdiesteko bidean eta, hortaz, solidaritate organikoaren egikaritza-prozesuan dagoen oztoporik handiena.

⁴⁸ [...] les progrès de la division du travail impliquent [...] une inégalité toujours croissante (Durkheim 2002a, II, 123. or.).

eskaintzeaz gain, izenik ere ez baitio jartzen⁴⁹. Lanaren banaketaren adierazpen anormal hau agertuko da, Durkheimek deritzenez, “funtzioak esleitzeko modu berak gizabanakoen jardunaren gaia desagerrarazten duenean”; edo, bestela esanda, “funtzioen maila ezberdinetako koordinaziorik ezak eraginda”, behargin bakoitzaren jarduera funtzionala urriegia denean dager azken adierazpen patologikoa. Horrela bada, “administrazio batean langile bakoitzak ez badu nahiko zeregin, orduan mugimendu ezberdinak ez zaizkie elkarri doitzen, lanak ez du batasunik, [...] solidaritatea arrakalazten da eta loturarik eza zein desordena azaleratzen dira” (Durkheim 1987, 457 or.)⁵⁰.

Philippe Besnarden irizpideei jarraiki, «burokratiko» izendatu dezakegu lanaren banaketaren adierazpen ohiz kanpoko hau. Izanez ere, dirudiena baita esamolde horrek ongi baino hobeto adierazten duela Durkheimek esan nahi duena: “espezializazio muturrekoa, produktibitate maila baxuei eta funtzioen doikuntza eskasari lotuta” (Besnard 2003, 24 or.).

Analogia organiko ezberdinetan oinarrituta, Durkheimen ahalegina, funtzio jarraituei dagokionez bederen, solidaritate-maila jarduera-mailaren araberakoa dela azaltzean datza⁵¹. Jarduera funtzionalaren hazkundeak, bada, jarduera bera jarraitua edo etengabekoa izan dadin eragiten du; eta jarraitutasun berak, berriz, solidaritatea areagotzea dakar berekin (Durkheim 1987, 460 or.)⁵². Oinarri hauek abiapuntutzat harturik, gizarte modernoek bereizgarri den patologia hau “ezohizko baldintzen” ondorio dela, deritzo Durkheimek; izanez ere, lanaren banaketa orohar “ez baita garatzen jarduera funtzionala aldi berean eta hein berean hasi gabe” (Durkheim 1987, 461 or.)^{53,54}.

Aurrekoaren ondorioz, autore alsaziarrak lanaren banaketaren moralitasuna (izaera morala) nabarmenduz amaitu dezake adierazpen anormalen analisisa:

Horrela, lanaren banaketa gizarte-kohesio iturri egiten duen arrazoi berri bat onartzera eramana gara. Gizabanakoak ez ditu solidario egiten [...] bakoitzaren jarduna mugatzen duelako, horrezaz gain areagotu egiten duelako baizik (Durkheim 1987, 464 or.)⁵⁵.

⁴⁹ Horri buruz ari denean «beste adierazpen anormala» baino ez du esaten. (Vid. Durkheim 1987, 457-464 orr.).

⁵⁰ [...] les fonctions sont distribuées de telle sorte qu'elles n'offrent pas une matière suffisante à l'activité des individus. [...] une incoordination plus ou moins grande de ces fonctions. [...] dans une administration où chaque employé n'a pas de quoi s'occuper suffisamment les mouvements s'ajustent mal entre eux, les opérations se font sans ensemble, en un mot la solidarité se relâche, l'incohérence et le désordre apparaissent (Durkheim 2002a, II, 130. or.).

⁵¹ Besteak beste, giza-organismoaren funtzio ezberdinen arteko elkarkidetasun edo solidaritate perfektuaren adibidea, eta igelaren arnasketa-funtzioaren eta bere organismoaren gainerako funtzioen arteko solidaritate ez-perfektuaren adibidea aipatzen ditu autore alsaziarrak (vid. Durkheim 1987, 458-460 orr.).

⁵² Georges Friedmann (1955, 73 or.) soziologoaren iduriko, XX. mendeko gizarte industrialetako lanaren eboluzioak erakusten duenez, begi bistakoa da aipatutako tesi durkheimiarra faltsua dela.

⁵³ Mais il faut des circonstances exceptionnelles pour que la division du travail se fasse de cette manière. Normalement, elle ne se développe pas sans que l'activité fonctionnelle ne s'accroisse en même temps et dans la même mesure (Durkheim 2002a, II, 133. or.).

⁵⁴ Bere argudioa indartzeko asmoz -eta salbuespen gisa, esan daiteke- Karl Marx aipatzen du Durkheimek (1987, 462. or.).

⁵⁵ Nous sommes ainsi conduits à reconnaître une nouvelle raison qui fait de la division du travail une source de cohésion sociale. Elle ne rend pas seulement les individus solidaires[...] parce qu'elle limite l'activité de chacun, mais encore parce qu'elle l'augmente (Durkheim 2002a, II, 134. or.).

4. ONDORIO LABUR BATZUK

Arestiko orrialdeetan azaldu dugun analisitik ondoriozta ditzakegun hiru kontsiderazio orokor nabarmenduz amaituko dugu idazki hau. Honatx:

Lehen-lehenik, *Gizarte-Lanaren Banaketa*-ren III. Liburuan mendebaldeko gizarte kapitalisten gaitz nagusien azalpen bat eskaintzen duen arren, baikortasun gehiegizkoa bere eginez, Durkheimek behin eta berriz aldarrikatzen du patologia horiek ohiz kanpoko egoera jakinen ondorio direla; eta, hortaz, eraldaketa aldietan dauden gizarteen aldi baterako krisialditzat jo behar direla. Durkheimek azaltzen dituen lanaren banaketaren adierazpen anormalak edo patologikoak, hortaz, gizarte industrial garaikideetan orokorrak izate berak agerian jartzen du autore alsaziarrak, batetik «normaltasuna», eta bestetik etorkizuneko gizarte batetako egoera ideal bat (errealia ez dena, alegia) parekatzen dituela. Bestela esanda, normaltasuna ez du «izanarekin», gertatzen denarekin uztartzen; «beharrizanarekin» edo egunen batean ezinbestean gertatu behar lukeenarekin baizik⁵⁶.

Bigarrenik, arrazoibide durkheimiarra, zeinaren arabera fenomeno morbidotzat dituen horiek aldi baterako krisialdiek eragindakoak baino ez diren, gaur egun ez da batere sendoa, sinesgarria ez izateagatik. Izan ere, zalantza izpirik gabe, delako «gizarte-lanaren banaketaren adierazpen anormalak» (anomikoa, injustua zein burokratikoak) mendebaldeko gizarte kapitalisten normaltasanarekin bat baidatoz gaur egun. Bestela esanda, globalizazio garaian etengabe aurrera doan merkatuen arauketarik eza; jaiotzez aberatsak eta txiroak diren pertsonen arteko amildegia, dagoeneko aukera berdintasuna kolokan jarri duena; burokrazia neurrigabea eta espezializazio gehiegizkoa egungo normaltasuna definitzen duten fenomenoak baino ez dira.

Hirugarrenik, eta aurrekoarekin zeharo lotuta, *Gizarte-Lanaren Banaketa*-n barne hartzen den ikuskera durkheimiarra ezaugarritzen duen baikortasuna guztiz desagertuko da Durkheimen geroko idazlanetan. Esatebaterako, *Suizidioa* lan monografikoan idazten duenez, anomia bera, azaldu dugunaren arabera hasiera batean fenomeno anormal edo morbidotzat jotzen dena, mendebaldeko gizarte modernoan aurrerabidearen ordaina bilakatzen da geroago; eta, horrenbestez, fenomeno horren normaltasanari buruzko zalantza izpirik ez dago. Bestela, Besnardek egin duen gisara paradoja modura adierazita, esan daiteke bere obra goiztiarrean ez bezala, geroko lanetan anormaltasunaren normaltasuna aldarrikatuko duela autore alsaziarrak (Besnard 2003, 35 or.).

Bibliografia

Besnard, P., 1982. L'anomie dans la biographie intellectuelle de Durkheim. *Sociologie et Sociétés*, 14, 45-53 orr.

Besnard, P., 1987. *L'anomie*. Paris: Presses Universitaires de France.

Besnard, P., 2003. *Études Durkheimiennes*. Genève: Librairie Droz.

⁵⁶ Steven Lukesek ongi baino hobeto adierazten du ideia hau, nabarmentzen duenean “industria, administrazio zein merkataritza alorreko gertakari konkretuen azterketari ekin beharrean, bere garaiko errealitateak etorkizuneko normaltasan-egoera ideal batetik zein neurritan aldentzen ziren aztertu zuela Durkheimek” (Lukes 1985, 178 or.).

- Bouglé, C., 1903. Revue générale des théories récentes sur la division du travail. *L'Année sociologique*, 6, 73-122 orr.
- Cotterrell, R., 1999. *Émile Durkheim: Law in a Moral Domain*. Stanford: Stanford University Press.
- Davy, G., 1919. Émile Durkheim: L'homme. *Revue de métaphysique et de morale*, 26 (2), 181-198 orr.
- Durkheim, É., 1987. *La División del Trabajo Social* [Carlos García Posadak itzulia]. Madril: Akal. 2002a-ren gaztelerazko itzulpena.
- Durkheim, É., 1988. *Las Reglas del Método Sociológico y otros escritos sobre filosofía de las ciencias sociales* [Santiago González de Noriegak itzulia]. Madril: Alianza Editorial. 2002b-ren gaztelerazko itzulpena.
- Durkheim, É., 1992. *El Suicidio* [Akal argitaletxeko argitaratze-taldeak itzulia]. Madril: Ediciones Akal.
- Durkheim, É., 1997. *Metodo Soziologikoaren Arauak* [Andoni Sarriegi Eskisabelek itzulia]. Donostia: Gaiak. 2002b-ren euskarazko itzulpena.
- Durkheim, É., 2002a. *De la Division du Travail Social* [linean]. Québec: Jean-Marie Tremblayk eginiko edizio elektronikoa. 2 fitxategi pdf. formatoan [2016ko urriaren 6an kontsultatua]. Eskuragarri web helbide honetan: <http://classiques.uqac.ca/classiques/Durkheim_emile/division_du_travail/division_travail.html>.
- Durkheim, É., 2002b. *Les Règles de la Méthode Sociologique* [linean]. Québec: Jean-Marie Tremblayk eginiko edizio elektronikoa. Fitxategia pdf. formatoan [2016ko urriaren 6an kontsultatua]. Eskuragarri web helbide honetan: <http://classiques.uqac.ca/classiques/Durkheim_emile/regles_methode/regles_methode.html>.
- Friedmann, G., 1955. La thèse de Durkheim et les formes contemporaines de la division du travail. *Cahiers Internationaux de Sociologie*, 19, 45-58 orr.
- Gane, M., 1995. La distinction du normal et du pathologique. In: M. Borlandi eta L. Mucchielli (zuz.), 1995. *La sociologie et sa méthode. Les Règles de Durkheim, un siècle après*. Paris: Éditions L'Harmattan, 185-205. orr.
- Joas, H., 1993. Durkheim's intellectual development: the problem of the emergence of new morality and new institutions as a leitmotif in Durkheim's oeuvre. In Stephen. P. Turner (ed.), 1993. *Émile Durkheim: Sociologist and Moralist*. London eta New York: Routledge, 229-45 orr.
- Karady, V., 1979. Stratégies de reussite et modes de faire-valoir de la sociologie chez les durkheimiens. *Revue française de sociologie*, XX (1), 49-82 orr.

Lukes, S., 1985. *Émile Durkheim: His Life and Work: A Historical and Critical Study*. Stanford: Stanford University Press, (1. ed. 1973an, London: Allen Lane The Penguin Press).

Moyá, C., 1970. *Sociólogos y Sociología*. Madril: Siglo XXI de España editores.

Ramos Torre, R., 1999. *La sociología de Émile Durkheim. Patología social, tiempo, religión*. Madril: CIS y Siglo XXI.

Rodríguez Zúñiga, L., 1978. *Para una lectura crítica de Durkheim*. Madril: Akal editor.

Tapia Alberdi, F., 2016. *Fundamentos de la construcción del pensamiento sociológico de Émile Durkheim*. Bilbo: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.